

ARAUAK: I. KARPETA: CD-ROM:

**(ARAUAK 1-75): 1994-1997eko UZTAILERA ARTEAN EUSKALTZAINEK
ONARTURIKOAK CD-ROM INTERAKTIBOAN**

Bilbo, egoitza, 1998-IX-15

*Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea(*)*

AURKEZPENA

CD-ROM honetako edukia jarraiko oharretan azaltzea gura genuke, alegia, euskarri informatiko honetan zer nolako materiala azaltzen den hizkuntzari lotua. Beraz, CD-ROM-aren laburpena, punturik garrantzitsuenak azpimarratuz, jarraikoa dugu, hots:

1. Gaia: Euskaltzaindiaren *ARAUAK I.* karpetakako materiala, CD-ROM interaktiboan.

2. MAC OS ordenadorearen INGURUNEAN ERABILTEKO GUTXIENeko BETEKIZUNAK:

2.1. Macintosh edo Power Macintosh ordenagailua, 68020 prozesadorea edo modernoagoa behar du izan.

2.2. MAC OS 7.0 edo modernoagoa.

2.3. 3.300 Kbyteko RAM memoria daukana, Macintosh 680 x 0 edo Power Macintosh ordenagailuetarako, memoria birtuala indarrean dela; 5 227 Kbyte, Power Macintosh ordenagailuetarako, memoria birtuala indargabetua dela.

2.4. 8 Mbyteko lekua duen disko gogorak eta 4.4 Mbyteko lekuak izan behar du, instalazioa egiten den garaian.

2.5. CD-ROM irakurgailua.

3. WINDOWS INGURUNEAN ERABILTEKO GUTXIENeko BETEKIZUNAK:

3.1. Ordenagailu pertsonala x 86 prozesadorea daukana (386, gutxienez; baina 486, Pentium, Pentium Pro edo Pentium II gomendatzen dira).

3.2. Microsoft Windows 3.1 taldean lan egiteko Microsoft Windows, Microsoft Windows 95 edo Microsoft Windows NT 3.51 edo 4.0.

3.3. Instalazioan 4 Mbyteko RAM memoria daukana izan behar du.

3.4. Instalazioa egitean 5 Mbyteko lekua daukan disko gogorak edo eta 7 Mbyteko tokia daukana izan behar du.

3.5. CD-ROM irakurgailua.

(*) *Oharra:* Joseba de Franciscok ARAUAK: I. karpeta-ren CD-ROM-aren prestatzaile-teknikiariak bai entzule eta bai kazetariei erabilera-azalpenak eskaini dizkie.

4. Erabilitako sistema: 'Acrobat Reader 3.0 artxiboa' deritzana dugu.
5. PC edo Macintosh ordenagiluetarako balio du.
6. NOLA ERABILI BEHAR DEN:
 - 6.1. Laguntza deritzan pantailara jo eta bertan agertzen zaizkigu sisteman aritzeko —nabigatzeko— oharrak.
 - 6.2. Bi aukibide dauzka:
 - a) Aukibide kronologikoa, alegia, ARAUAK onartu diren arabera, hilabetez hilabete, lehen/1. Aurutik 75 punturaino.
 - b) AURKIBIDE ALFABETIKOA.
 - c) 'Euskaltzainburuaren hitzak', alegia, Jean Haritschelhar-ek idatziriko berbak ARAUAK direla eta.
 7. Eskuetan dugun CD-ROM honek '*laguntza*' deritzan pantaila dauka eta bertan programa erabili eta instalatzeari buruzko informazio edo argibide jakingarria aurkitzen dugu. Goian adierazitako pantailetatik sail bakoitzera jo ahal dugu. Sail edo eremu bakoitzaren hasieran 'aukibideetara' itzul gaitzke goian azaltzen den botoietan sakatu edo jo ondoren. Beraz, edozein orrialdetatik 'ARAUAK' pantailara itzuli ahal dugu behe aldeko botoiari emanaz gero, eta edozein seinaletera zuzenki jo ezker aldean aurkitzen diren markadoreetan joz gero. Aipatu markadoreok triangeluetan jo ondoren narbarmetzen zaizkigu.



8. Jarraian CD-ROM sistemako lanabesen azalpena datorkigu.

9. ARAUAK CD-ROM honetako bilaketa indexatuak ditugu ondoren, alegia, 'Search' edo 'buscar / explorar' komandoa deritzanak ARAUen testu osoa bilatzeko balio du indexatuta dauden Acrobat agirietan edo agiri multzoetan. Eta berauen aurki-bidea-datutegia da, hots, agiri horien testua duena.

* * *

Fitxa teknikoa:

ARAUAK: 1. karpeta: CD-ROM
EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A. L. B.

Eskabideak egiteko:

Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Argitalpen zerbitzua

Plaza Barria, 15
48005 BILBO

Tlf. 94. 415 81 55

Fax: 94. 415 81 44

e-mail: euskalbilbo @ jet.es

Salneurria:

ARAUAK karpeta harpidedunentzat: 1500 pta.
Bestelakoentzat: 8.000 pta.

* * *

NORMATIVA EN CD-ROM DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA

PERIODO COMPRENDIDO: OCTUBRE DE 1994-
-JULIO DE 1997

CARPETA 1.ª: 1-75 DE LA NORMATIVA DE LA LENGUA VASCA

Bilbao, 15-09-1998

*Ricardo Badiola Uriarte,
ejecutivo del Servicio de Publicaciones*

Partes comprendidas en el CD-ROM:

- a) Índice cronológico de la NORMATIVA impresa y publicada en la Carpeta 1.ª titulada ARAUAK-1.
- b) Índice alfabético de la NORMATIVA.
- c) Introducción del Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca/ Euskaltzaindia Jean Haritschelhar Duhalde.

Aparte de estos tres apartados el CD-ROM *ARAUAK-1* posee un apartado denominado 'Laguntza / Ayuda' con unos índices generales que aparecen en la pantalla cuando se consulta una NORMA de la Lengua Vasca.

Disciplinas principales del CD-ROM:

1. Gramática: uso del partitivo, régimen de ciertos verbos: GONBIDATU, ITXOIN, LAGUNDU...
2. Diccionario unificado desde la letra A hasta la I: A... ALKOHOL... BEGIRALE... DENDARI... ESLEIPEN... FORU... GIDARI... HARPIDEDUN, HANTURA, HARRIDURA...IGUZKI.
3. Declinación: v.g. posesivos: NI, NIRI, NIREKIN...; singular cercano: HAU GUZ(T)IA...
4. Ortografía-Morfología: (ARRAIN y no *arrai*, ARTZAIN y no *artzai*...; Graffía del prefijo BA- y de la preposición GABE, etc.).
5. Composición de vocablos y su graffía: BENETAKO, OHIKO, BETIKO...
6. Formas alocutivas del verbo: DUK / DUN... LIEKEK / LIEKEN... ZAIOK/ ZAION... LEZAKEK / LEZAKEN... GABILTZAK / GABILTZAN... ZIOTSEK / ZIOTSEN...
7. Graffía de la raíz de ciertos verbos: IKAS, IBIL, JAIKI, BETE, EKAR...

8. Onomástica:

a) Nombres de las diferentes provincias y comarcas de España y de Francia: AN-DALUZIA, MADRIL, ALACANT, ERRIOXA, EIVISSA, VALENTZIA, SIBILIA...; ALSAZIA, LORRENA, PIKARDIA...; ALPE GARAIAK, BORDELE, ARROXELA, MARTINIKA, AKIZE, TARBE, SAVOIA, TOLOSA...

b) Denominación de los nombres propios de los diferentes estados del mundo, capitales y gentilicios: ARMENIA, ARMENIAR, EREVAN, EREVANDAR; BELIZE, BELIZETAR, BELMOPAN, BELMOPANDAR; BRUNEIKO ESTATUA, BRUNEI-TAR, BANDAR SERI BEGAWAN, BEGAWANDAR; ERRUSIA, ERRUSIAR, MOS-KU, MOSKUTAR; ESTONIA, ESTONIAR, TALLINN, TALLINNDAR; GEORGIA, GEORGIAR, TBILISI, TBILISTAR; JAPONIA, JAPONIAR, TOKIO, TOKIOTAR; KANADA, KANADAR, OTTAWA, OTTAWAR; KROAZIA, KROAZIAR, ZA-GREB, ZAGREBAR; KUBAKO ERREPUBLIKA, KUBATAR, HABANA, HABANA-R; LETONIA, LETONIAR, RIGA, RIGATAR; LITUANIA, LITUANIAR, VIL-NIUS, VILNIUSTAR; NORVEGIAKO ERRESUMA, NORVEGIAR, OSLO, OSLOAR; UKRAINA, UKRAINAR, KIEV, KIEVTAR; YEMENGO ERREPUBLI-KA, YEMENDAR, ADEN, ADENDAR; ZIPREKO ERREPUBLIKA, ZIPRETAR, NI-KOSIA, NIKOSIAR...

c) Graffía de los diferentes continentes del mundo, nombre de algunos nombres geográficos y gentilicios: EUROPA, EUROPAR; MENDEBALDEKO EUROPA; OZEANIA, EKIALDE HURBILA, OZEANIAR; EURASIA, EURASIAR; IPAR AME-RIKA, HEGO AMERIKA, ERDIALDEKO AMERIKA, AMERIKAR; AFRIKA, AFRIKAR...

d) Graffía de diversos nombres de montes, ríos, mares... del mundo: mendiak: AL-PEAK (ALPE mendiak), PIRINIOAK (PIRINIO mendiak), KARPATOAK (KARPA-TO mendiak)...; Ibaiak: DANUBIO, IBAI HORIA, MOSELA, RHIN, RODANO, TAJO, VOLGA, YONNE, ZAMBEZI...; Itsasoak: BIZKAIKO GOLKOA, ITSASO BELTZA, IPAR ITSASOA, ITSASO GORRIA, ITSASO HILA, ITSASO ZURIA, ITSASO JONIKOA, LIONGO GOLKOA, MEDITERRANEOA (Mediterraneo itsa-soa)...

e) Graffía de las principales islas del mundo: ANTILLAK, BIKINI, GOMERA, HAITI, JERSEY, MADEIRA, MIKONOS, SALOMON, SONDA, TIMOR, ZIKLA-DEAK, ZIPRE...

f) Nombres de lagos: BALATON, COMO, ERIE (Ipar Amerika), LADOGA, LE-MAN; ONEGA, TITIKAKA (Hego Amerika), GARDAKO aintzira, KARIBA (Afrika), MICHIGAN (Ipar Amerika), TXAD (Afrika), URMIAKO aintzira (Persia), WINNIPEG (Ipar Amerika)...

g) Graffía de las diferentes provincias del País Vasco / Euskal Herria y de los diferentes dialectos del Vascuence/Euskera: ARABA, ARABAR, ARABAKO EUS-KARA; BIZKAIA, BIZKAITAR, BIZKAIERA; LAPURDI, LAPURTAR, LAPUR-TERA; ZUBEROA, ZUBEROTAR, ZUBERERA.

h) Nombres comunes del santoral: AGATA, ANASTASIA, ARNAUT, BAR-NABE, BRIGITA, ELOI, ERRAMUN, FELIZIA, GILEN, HENRIKE, HUNBERTO, ISIDORO (Sibiliakoa), JURGI, KARLOTA, LAURENDI, MARTZELINO, NARTZI-

SO, PETRI, ROKE, SIGISMUNDO, TADEO, VIKTOR, XABIER, ZELEDON, ZOSIMO...

Características técnicas del CD-ROM:

1. Instalación del programa READER (Instalación en un ordenador Apple (o Macintosh compatible).
2. Instalación en un ordenador PC (o Windows compatible).
3. Sistema de navegación: programa Acrobat Reader.
4. Descripción de las herramientas de Acrobat Reader.
5. Búsquedas indexadas: comando SEARCH, Acrobat Search.= 'buscar, explorar'.

ARAUAK-1 CD-ROM-EAN AURKEZTEAN

Egoitzan, 1998-IX-15

Jose Antonio Arana Martija

Arauk-1 euskarri informatikoan aurkeztu ondoren, Patxi Goenaga, Euskaltzaindiaren idazkariak eta Ricardo Badiola argitalpen eragileak esandakoei zerbait erantsi nahi diet. Teknika berriek eskatzen duten bidean sartua dela Euskaltzaindia eta Arauen aurkezpen hau lehen urrats bat baizik ez dela edierazi nahi nuke.

Izatez, ekintza zabal, ugari eta emankorrago batean ari dela gure Akademia esan behar dut. Bilboko egoitza honetan eta Euskal Herriko beste hiriburuetan, hots, Iruñean, Donostian, Gasteizen eta Baionan dituen ordezkartzetan, gaur eguneko teknikari dagokion informatizazioaz asmoz eta gogoz plangintza burutzen ari dela. *Orotariko Euskal Hiztegia*, Hiztegi Batua, Euskararen Hizkuntz Atlasa, Gramatika, Onomastika eta beste batzorde batzuek ekoizten dituztenak datubase batean bildu eta edonork bilatzeko eran jartzeko azpiegitura informatikoa osotu. Une historiko honetan, eta Euskal Herri osoari begira, Euskaltzaindiari dagokio hizkuntzaren arauak ematea, euskalkiak bere bidean utziz eta sendotuz, baina denontzat baliagarria eta ulergarria den euskara batua bultzatuz.

Badago beste arlo bat ere, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekak ikertzen eta zainitzen duena: Euskal Herriko biblioteka publikoen eta liburutegien katalogazioan bateratu behar dena, gure kulturaren mesedetan. Azkue Biblioteka da une honetan euskarazko katalogoa egiten ari den instituzio bakarra. Bibliotekonomiako hitz teknikoak eta esaldiak euskara egoki batera itzuli behar dira eta lan horretan ari da, jadanik ia mila hitz eta esaldi itzuli dituelarik. Eta ez bakarrik bere katalogoa burutzeko dituen beharri zehar erantzuna emateko, beste batzuk euskarazko katalogoa egiteko eredu akademikoa izango delako baizik. Honek ere badu informatizazioaren plangintzarekin zerikusirik, sare orokorrean sartu eta edonorentzat kontsultagarri izango delako. Euskal Bibliografia Interneten sartzeko ezinbesteko bidea izango da hau.

Baina beste berri bat ere eman nahi dizuet, bibliografia munduan hasiera baino ez dena. Euskal kultura bultzatzerakoan, gure herriko biblioteka eta liburutegien katalogo orokorra burutu beharrean gaude, munduan zehar gure bibliografia zabaltzeko, “eman ta zabal zazu munduan fruitua” egia bihur dadin. Eta horretarako beste erakunde batzuekin harremanetan hasia da Euskaltzaindia, beraien ondare bibliografikoak euskaraz katalogatzeko eta euskarari eta euskal kulturari dagozkien testuak ordenagailuen pantailetan irakurgai jartzeko. Lehen urratsa eman du eta Legebiltzarrean dagoen Juan Ramon Urkixo jaunaren liburutegi aberatsa digitalizatzeko hitzarmena sinatuko du. Informatizazioaren emaitza aberasgarria izan dedila espero dugu, beste erakunde batzuekin bide beretik jarraituz.